

Alemanian, Prantzian: soiñeko dotoren aspian: txabolismoa.



soiñekoa

Ia erdi lotan nentorren trenan Attendorn-era sartu danean. Bearbada nekatuta ere banago, nolani ere lo-gure beintzat bai. Irakur-tzen ari naizen **The Town** nobelan aurrera bide ne-ksu batean bezala jardun naiz: pentsamentuak akabe-raraño noiznai iges egiten zidala “Poetak ekibokatu egiten dira, ori bai. . . Baiña orratio, gertakizuneri buruz ia beti utsegiten baitute poe-tak, utsegin!” Tira, baiña etzan Faulkner-en frase or-taz, illuntzan Centro Don Bosco-n espaiñolen festara joan naizelarik, oroitu nai-zenaz. Frase ori irakur-tzean, trenak derrefente fre-natu balu bezala izan da, gero atzera martxan nor-mal.

Bixtan dago Attendorn-en zuzenean espaiñar langilleen kapeillauarengana joan nai-zela. Beno, ez. Baztarrik baztar, galdezka, eta bide bat bi aldiz egifiaz, ez bai-nuen erria ezagutzen, lehen-dik egona naizen arren.

Aita Pedro Mari-k lan ne-ksu bezain txalogarria da-rama, langilleen artean. Es-paiñar mordoxka polita dau-

ka errian bertan eta etzaio inguruetan zeregiñik falta. Attendorn-en eundik amabi arrotz ditugu. Danetik egin bearra, gaiñera. Gaur, esa-te baterako, festa bat omen daukate espaiñarrak paratu-ta, dantza edo olako zerbait, eta —nola ez!— kapeillauak presente egon bear. . .

Baezpadan jakifñaren gai-ñean jarri nai izan nau, lan-gilleok ikus ditzadan aurre-tik. —Ik ezdakik emengo berririk, eta ikusiko duk. Oso ondo jazten dituk emen-go langilleak, eta dirua pa-rra parra ote duten galdetu naiko duk. Arrituta gelditu-ko aiz.

Berak azaldu dit, alare, zergatik ez dudan arritu bear. Soiñeko ona sikolo-giaren aldetik defentsa bat da, inguru ambienteari jar-tzen zaion esi ta artueman bide, biak batera.

—Soiñeko dotoreen azpian txabolismoa: ori duk emen-go mami eta azala.

Orduan akordatu naiz no-la komentura jateko eske etortzen diran asko (zer uste zenuen ba, ez dagola pobrerik emen?) ederki jaz-ten direla.

Familia pobreak dotorezia estimatzen bazuten gaitzi-ritziak izan oi ziran nire txi-kitako erri koxkorrean. Eta nik ere —beti ola ikusi nuen— eukitzearren maillan edo poportzioan jazteari ner-ritzaion egoki. Arrokeria zan bestea, edo aizakeria. Edo jauntxokeria. Beno, bearbada ikusten eta kriti-katzen zutenen bekaizkeria besterik ez, baiña olaxe zan. Oraindik ez nuen gizatearen, gizon teoriako ez baiño in-gurumarieri lotuta doan gi-zonaren berri zuzenik. Ge-rora konturatu ahal izan dut nola jantziak gizatea al-datzen duen, dezakean bein-tzat. Eta fenomeno asko arg-itu zitzaizkidan bapatean. Habitoak eta uniformeak, orain anka z gora bota nai diran traste oriek (eta ez nau ifñork orien abogatu en-kargatu, ez orixe!) zer sig-nifikatzen zuten ulertu dut. Eta argi argi ikusi dut zer-gatik diktadura guztiek uni-formez, insigniaz, eta kei-nuz kargatzen diran. Zerga-tik nai izaten diran alako jantziak ezkontzarako eta olako besteak bataiorako ta bestelakoak bestetarako.

Ez dut konprenitzen nola demonio, baiña orixe dira noski: defentsabide bat.

Italiar langille bati entzun nion. Etorri zanean ez omen zeukan xentimo bat. Baiña

joxe azurmendi

irabazten zuentxo guztia aurreratu ordez garbi ta txukun agertzen, egoki jazten saiatu zan. Edozein gizartek arrotzari dion errezeloa gainditu zuen orrekin. Eta pixkana pixkana, alemaniar gizartean leku erosoak moldatu dio bere buruari. —Alferrikaldu egiten nuela esaten zidaten diruak bere ondorena ekarri du, esaten zidan. Etzait dan-dana gorde nai zuen ainbat Jerolimori gertatu zaionik tokatu. Nunai ongi artzen naute alemanek eta pozik sentitzen naiz gizarte onetan. Ez naiz **ghetto** batean baztartuta bizi.

Iztegi kankaillu lodi orietako batean begiratu dut, ia **Soiñeko** itzean zer dion. Beste berrogeimilla punturen artean zera aurkitu dut, alegia, igandetako ta asteguneko jaztekoen ezberdintasunik ez dagola geiago.

Konturatua nengoen orrekin. Bai, eta soiñekoa defentsa dala ukatu gabe, puritano xamarra izan bear dut nik, ze, beti gelditu zait tranpago ez ote dan susmoa. Ez dut zepo danik esaten, gero. Orixe, tranpa.

Izan ere, danarekin eta daukanarekin konformatzen dan oso gutxi ezagutzen du munduak. Oi, onoko ta besteke jaio bagiaña! Suberte geixeago izan bagenu, gerrak ez baligu dana iruntsi, etorkizuna lotsagaldutse na ez balitz!... Oi, geranak ez bagiaña, ez baizik zerbait errespeta-garriago, goragarrigo, ederrago (tira, seguru asko ahal ditekean ederrrentzat jotzen du bakoitzak norbere burua!). Eta ez ge-

ran ezkeru, eta bixtan dagon ezkeru ez dala gure kulpa, ba, orduan aitzakiak asmaetzen ditugu. Gerana diximulatzeke, ezta? Seguru asko. Eta gure aitzakiak etzaizkio iñori ipuin bat axola eta ez ditu iñork sinistuko, baiña guk bai, eta ori da inportanteena, klaro.

—Kontuz, esan dit Kapeillauak. Emen danak kontatuko dizute koiñadoak ez dakit zer lurralde dauzkala, edo gurasoak zer zirala edo alako ta besteke dala osabaren bat. Ez eiozu galde zeure buruari zertako etorri diran orduan ogi billa onuzaiño.

Eta Faulkner-en au nuen oroimenean, erle baten burrundarekin etengabe ziztazten, gaur gabeko festan: Naturaleza korrejitu nai izaten dugu. Gure aurrekoen artean heroerik ez badago, asmatu egin bear da, eta gu ezer ez bagera izango generala edo izan gindezkeala pentsa, edo ondorengoren bat izango dala.

Naturaleza zuzendu, beraz. Batek estudiatu egiten dizu, beste batek kriminale-riak kometatu, geienak ez legokien eran jantzi: ez gerana diximulatzeke. Listoak engaiñatzea tontoak bakarrik probatuko omen dizu, eta tontokeria ikaragarria da tontoagoak engaiñatzea, baiña bere gazigozoa dauka diximulatzeak, eta diximulatu egiten dugula bera ere diximulatzeak zer esanik ez.

Nik umetan asko mires-ten nuen Gonzalo Kordobakoa, Kapitain Aundia. Arrezkeru dakit (ari ikaragarri gustatzen omen zitzaion jantzi arroak soberano luzitzea) jokaera onen nundikoa: ez gerana izateko amesa sekula

itzaltzen ez dalakoxe. Eta gafiñera, batzutan, ez geranak izatea iritxi ere egiten dugu.

Attendorn-eko dantzalekuan zearo zegoen korrejituta Naturaleza. Dana apain, txukun txukun. Ze, gusto kontuak aldera, Alemanian jendea oso poliki jazten dala aitortu bear da. Joan dan neguan makiña bat neska ikusi dut txapel gorriarekin. “Pontxea” ere agertu zan nunbaitetik, eta gauza ziran andrazko danak ikusten ziran beren “pontxeekin” kallean, panpatik itrendako inbasio baten antzera.

Gero, udaberrian, papelezko soiñekoak ere agertu ziran. A bai, papelezko soiñekoak! Gomutatzen naiz nola bein ikasleak elkarrizketa bat genuen eta, kafekoan, nire alboan zegoenak esan zidan belarrira: Chantal-ek papelezko soiñekoa zeukak! Chantal inglesa da, eta amaren aldetik euskal etorkikoa omen baita, primeran konpontzen gera. Nik uste dut amazortzi urte eukitzea ez dala bere kulpa eta seguru asko ezta amazortzi urte eukitzearen ondorenean ere. Urrengo elkarrizketa prantatu zutenean, eta telefonotik deitu zidanean, ezin ixildu izan nuen kolkoan galdera: beno, Chantal, zer gertatuko litzake norbait paper-soiñeko batekin dabillela kalerdian zaparrada batek arrapatuko balu?

Ba, etzidan esan, eta jakin naiarekin gelditu bear izan nuen. Baiña orain ba dakit...

Orain ba dakit: nola protestaren denporetan gauden, ikuspegiak aldatu egin dira, eta orain ba gerana ere ez izaten saiatzen gera.